



ZER DIRA BATZORDE INFORMATIBOAK?

5000 biztanle baino gehiagoko herrietan ezinbestean osatu beharreko batzordeak dira. Hortik beherako herrietan, berriz, barne funtzionamendurako ordenantzek hala aurreikusten dutelako edo plenoak hala erabaki duelako osatzen dira.

Printzipioz, batzorde guztietako presidentea alkatea bera da. Hala ere, zinegotzien artetik edozeinetan eskuordetu dezake batzorde jakin bakoiteko presidentzia. Ohikoena horixe izaten da.

Batzordeak eratzeko garaian talde politiko guztiek dute euren kideak izendatzeko eskubidea. Euren parte-hartzea, udalean duten ordezkariaren arabera izaten da. Batzordearen osaera konkretua eratze saioan erabakitzen da. Udala osatu eta hilabeteko epea dago lehen Osoko Bilkuran batzorde guztiak osatzeko. Bertan izendatu ohi dira presidenteak, parte hartuko duten teknikariak eta kideak. Izendapenarekin batera rdezko bat ere aurreikusten da.

Batzorde informatibo motak

Iraunkorrak: Osoko Batzarraren eskumeneren jarraipena egiteko beharrezkoak direnak (Euskara, Kultura, Ogasuna,...). Hauek legealdi osoan zehar mantetzen dira. Aurretiaz Osoko Batzarrean ezarritako maiztasun, ordutegi eta egutegia mantetzen dute. Hauetan eman beharreko aldaketak Osoko Batzarrak berak onartu behar ditu.

Bereziak: Gai zehatz bat jorrazteko Osoko Batzarrak behin behinekoz sortzea erabakitzen dituenak dira. Automatikoki desegiten dira behin egitea eskatzen zaion diktamena eginda.

Funtzioak

- Batzorde informatiboek ez dute erabakimenik. DIKTAMEN bitartez gai konkretuen inguruko hausnarketak egin eta erabakimena duten organoei erabaki konkretuak proposatzen dizkiete.
- Diktamenak proposazen duen erabaki derrigorrezkoa bada ere ez da loteslea. Kontrako erabakia har dezake organo eskudunak. Noski, behar bezala argudiatuz.
- Euren funtzio nagusia plenoak aztertu eta ebatziko dituen gaiak aztertzea, jorratzea eta informatzea da.
- Alkatetzak edo Tokiko Gobernu Batzordeak ere, eurak hala erabakita, eska diezaioke euren jardunean funtzio berdina betetzea.
- Urgentziazko kasuetan, Osoko Bilkurak eta Tokiko Gobernu Batzordeak, aurretik



dagokion Batzorde Informatiboak diktaminatu gabeko erabakiak hartu ahal izango dituzte. Hori bai, batzordea ospatzen den lehen saioan kontu eman beharko da. Batzordeko kideren batek hala eskatuko balu, balizko “urgentziazko arrazoiak” Tokiko Batzarrera eramango lirateke eztabaidatzera.